

MERKATARITZA-INDIZEA AZALERA HANDIETAN ETA ELIKADURA-KATE HANDIETAN. 2024ko APIRILA


Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 1,0 jaitsi dira 2024ko apirilean

Aurreko hilarekin alderatuta, salmentak % 0,4 jaitsi dira

Eustaten datuen arabera, eta joan den hilarekin alderatuta, Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 1,0 gutxitu ziren 2024ko apirilean, prezio konstanteetan.

2024ko martxoarekin alderatuta, prezio konstanteetako salmentak % 0,4 jaitsi dira.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

Elikaduraren sektorean, prezio konstanteetako salmentak % 0,9 gutxitu dira hilabete artean. *Gainerako produktuen* sektorean, berriz, salmentak % 0,4 igo dira.

Urtetik urterako balioetan, 2024ko apirilean, 2023ko apirilaren aldean, prezio konstanteetako salmentak % 0,8 murriztu dira *Elikaduran*, eta % 1,3 *Gainerako produktuetan*.

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hilabete arteko aldakuntza-tasak (p). Apirila 2024

	Prezio finkoak		
	m / m-12	m / m-1	A (m) / A (m-12)
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	-1,0	-0,4	-0,1
Araba/Álava	-1,3	-0,5	0,4
Bizkaia	-1,7	-0,8	-0,6
Gipuzkoa	0,4	0,2	0,5
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Janariak	-0,8	-0,9	0,5
Gainerako produktuak	-1,3	0,4	-1,2
ENPLEGU-INDIZEA			
Euskal AE	0,7	-0,4	1,7

(p) Behinbehineko datuak

m / m-12 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

m / m-1 Hilabeteen arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

A(m)/A(m-12) Urtarriletik hil korrientera arte metatutako aldiaren urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko aldi metatu beraren aldean

Data 2024ko Maiatzaren 28a

Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan (AHEK)

Urtetik urterako balioetan, Bizkaian % 1,7 jaitsi dira azalera handietako eta elikadura-kateetako salmentak eta % 1,3 Araban. Gipuzkoan, aldiz, salmentak % 0,4 igo dira prezio konstanteetan.

Aurreko hilarekin, hau da, 2024ko martxoarekin alderatuta, salmentek behera egin dute bai Bizkaian bai Araban, % 0,8 eta % 0,5, hurrenez hurren. Gipuzkoan, aldiz, salmenten balioa, prezio konstanteetan, aurreko hilarekin alderatuta, % 0,2 igo da.

Azkenik, Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako langile-kopurua % 0,7 igo da 2023ko apirilarekin alderatuta. Aurreko hilarekin alderatuta, langileen indizea % 0,4 jaitsi da.

METODOLOGIA-OHARRA

Azalera handietako eta elikadura-kate handietako merkataritza-indizearen erreferentzia-urtea berritu egin da, eta 2021. urtea da indizearen oinarri berria. Oinarria aldatzeko prozesuak metodologiaren eguneraketa sakona ekarri du, eta, besteak beste, baliozkotze- eta inputazio-metodoak berrikusi dira eta aztergai den biztanleria doitu da. Horrek guztiak indizearen serieak eguneratzea ekarri du.

Urte arteko aldakuntzak, egutegiaren eraginak zuzenduta dituzten serieetatik abiatuta kalkulatu dira, eta hilabete artekoak urtaroen eragina kendutakoetatik.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie azalera handietako eta elikadura-kate handietako merkataritzaren indizea egiten lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hilabete honetako indizea **% 89,2ko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiago:

[Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62